


Astekaria

BARREN

elgoi



1420
M A P F R E

ASEGURU ETXEA

15000
San Frantzisko 40 behea. ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

Euskadi berritzearekin elkar zaitez.



1403

25.000

Eman botoa



EAJ
PNV



22.000

HUSOUARN^N
MOTOSERRE^N
ESKAINIZA BEREZ1A

garajea

San Frantzisko 53., TeL 74 01 86



DESBROZADOR^A
JAPONIARRAK
PREZIO EZIN HOBEAN

**iklomotore eta motorren salmenta
eta konponketa**

Motoserren salmenta eta konponketa

Desbrozadoren salmenta eta konponketa

Gurpilen salmenta eta konponketa

izikleten salmenta eta konponketa

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazalegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antlon Bergara,

Edume Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

PUBLTATEA:

Nekane Exaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazalegi, Itziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansola,

Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara

Burgaina, Urtzi Etxobe, Asier

Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix

Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez

Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose

Mari Galdos, Ino Garagarza,

Gotzon Garate, Amaia Gorostiza,

Alfonso Guilló, Maite Iriondo, Ekaitz

Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga,

imanol Larrarlaga, Haritz Leon,

Jesus Mari Makozaga, Aitor Maya,

Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose

Inazio Sarasua, Oihana Tarragual,

Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor

Vazquez, Ana Miryam

Villasante, Alaitz Vives, Aitor

Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Ofiati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARREnek ez du bere gain bartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Gure Joanes txikia

Ziur naiz, artikulua izenburua irakurtzean, harritu auipegiak izango direla etxe anitzetan, baita batek baino gehiagok ez ohizkoa, bitxia eta, agian, pertsonalizatuegia iritzi ere.

Edozelan ere, ez da horrenbestera, zeren, BARRENen irakurle zaren horrek, Joanes jartzen duen tokian Leire, Mikel edota Ane,... hau da, etxean hain maite duzun txiki horren izena leitzen baduzu, zuk zeuk bitzakoa baino ez dela idazki honetan isladatzen konturatuko zara.

Bizitzako beste mila arlotan bezala -denetan ez bada- amatasun-aitatasun sentipena ere norberak bizi behar duen zerbait da. Han eta hemen gauza franko entzuten diren arren, seme-alaba besotatu arte ezin izaten dira guztiz ulertu eta bai, ostera, exageratu samartzat jo.

Haurra kabirutzen den unetik bertatik hasten da aldatzen guraso berrien eguneroko bizimodua. Libre eta erlojuaren menpekotasunetik at, norberaren kasa eta hala nolako anarkian ibiltzetik, biberoi, fardel eta horrelakoen morrol bihurtzen da bikote gaztea. Ondorioz, etxeko martxa -bapatean-, Japoniako lantegirik sutsu eta saiatuena bailitzan, ordulari

suizarren zehaztasunera ekartzen da.

Halaber, hasieran maldan gora egin daitekeen arren, baditu sariak, eta ez gutxi, alajaina! Gau eta egun berari so, beste inoren seme-alabarengan oharkabean geratuko litzatekeena, ez da horrela norberarena denean.

Umearen farre txom, iparririk gabeko begirada eta ahoa eteteko moduko aharrasuz luzeak, dudarik ez, emari ezin ederragoak dira gurasoentzat.


Esanak esan, larriena, bitxiena eta -noski- ederrena sortzen duen dependentziarena da. Alkoholek basokada bat ardo, drogezalek dosisa eta jokuzalek bere zenbakia behar duen eran, gurasook alaba-semearen hurbiltasuna behar dugu.

Dena den, badago aldea eta ez makala. Beste horien sendatzeko badago nora jo, gurean, aldiz, nora? Beste horientzat asmatu bide dira sendagaiak, guretzat, nik clakidanez, umea ikusi, besarkatu, laztantzetik aparte, ezer gutxi. Beste horien gaitzak, azken finean, ba omen du sendatzeko modua, gureak ez. Eta ESKERRAK!

Zerbait izan ote da? Noan begiratzea. Kaixo, Joanes! Zer moduz dago amatxoren poza?

Myriam Villasante

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Suilcrk, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



• **Ba al dago Elgoibar eta Azkoitia lotuko dituen autobus zerbitzurik ipintzeko asmorik?**
 BARREN Eusko Trenbideak enpresako arduradunekin egon da eta erantzuna baiezkoa izan da. Halere, zerbitzu hau ezingo da 95eko urtarilaren erdi aldera baino lehenago martxan jarri, biabilitate azterketak egin behar baitituzte.

21 KEXAK

Aste honetan bi kexa dauzkagu:

- Irakurle batek deitu digu **IMH** oso polita eta dotorea dela esateko. Baina, bera bizi den ingurua bastante "abandonaturik" omen dago eta hau ez zaio zuzena iruditzen.
 - Beste irakurle bat kexu da Mintxetara deitzen duen bakoitzean, telefonoz gazteleraz hitz egin behar izaten duelako. Honen ardura norbaitek izango duela esan digu.



TXALOAK

Irakurle batek deitu digu TxikiBARRENen irtetzen diren neska-mutil guztiak txalotzeko. Berak esan digunez, oso ondo pasatzen omen du eurak esan eta idatzitakoak irakurtzen.

Faunak ez dauka jaberik

Vrriaren 9an, hasera eman zitzaion ehiza sasoiari. Hau kontutan izanik, hitz batzuk esan nahi nituzke horren inguruan. Nola egon ehizaren alde gure luntaldean jaiotzen eta ikusten den fauna urriaren egoera ikusita? Ez da biologoa edo gai hauetan aditua izan behar; nahikoa da menditik buelta bat ematea gero eta espezie gutxiago dagoela ikusteko eta, daudenak ere, gutxitzen ari direla konturatzeko.

Nahiko jipoitzen dugu fauna, deforestazioa, intsektizida, erreketara egindako isurketa eta abarren bidez, hortik bizirik ateratzea lortzen dutenak berriro ere astintzeko.

Ez dago estatistikarik, baina Estatuan 70 eta 90 milioi animalia hiltzen dituztela uste da, hauetatik asko babestutako espezieak direlarik.

"Kontrapasa"rekin, hau ere barriro legezkatua, espeziea berritzera doazenak akabatzen dira eta, beraz, kaltea biderkatu egiten da.

Faunak ez dauka jaberik eta izango balu, gizartea izango litzateke, bere osotasunean; eta hau da, hain zuzen ere, neurriak hartu behar dituen gizarte horretako zati batek ez dezan jar arrisku handiagoan espezie

batzuen biziraupena.

Kontuan hartu behar dira, bai ehiztari elkarte eta baita ekologistak ere (biak maila berean), eta ez alde batekoak soilik, orain arte gertatu den bezala; inori ez litzaioke bururatuko kutsadura sortzen duten enpresen esku uztea gai hau Iegislatzeko ardura, eta modu beretsuan jokatu behar da ehizaren arazo honetan ere.

Egoerak neurri konprometituagoak eskatzen ditu naturaren kontserbaziorako eta pentsatzen dut tajuzkoena moratoria ezartzea litzatekeela, tarte horretan hemengo fauna eta emigratioari buruz azterketa sakon bat egin beharko litzatekeelarik.

Era berean, segurtasun guneekiko errespetua eskatu beharko litzateke; mendietan animaliak askatzea debekatu, horrek sortaraziko lukeen eragina aztertu gabe, Udalaren esku dauden lur publikoetan ehiza debekatzea eta abar...

Laburtuz, ehiztari ez direnei eskatzen diedana da besteoi txorien hegalaldiak eta animalien jolasak behatzen uztea eta haiei, hori egiteko aukera ematea.

Fernando Salegi
 EGUZKIKO KIDEA





Iejandro Alvarezek ekarritako erretratu hau 1955-56 denboraldian atera zuten Lerungo Futbol zelaian. Argazkikoak "Elgoibar Txiki" taldeko jokalaria dira, errejionalean jokatzeko zutenak.

004

Tente ezkerretik eskumara honako hauek dira argazkikoak: **Jose Luis Epelde, Valentin Ibarluzea, Patxi Lizarralde, Luis F. Astigarraga, Luis Mari Arregi, Joseba Zulaika, Jose Arriola** eta **Juan Jose Arrillaga**.

Makurtuta: **Daniel Lasa, Alejandro Alvarez,**

Fernando Ansola (t), Jose Luis Ansola eta **Juan Agirregomezkorta (t)**.

Jokalari hauen artetik, **Fernando Ansola** internazionala izan zen, **Luis Astigarragak** Lehen Dibisioan jokatu zuen, **Valentin Ibarluzea** Alaves-en aritu zen eta gainontzeko guztiak Hirugarren Dibisioan jokatu zuten, Elgoibarko "kantera"ko fruitu.

Argazki honek badu bere historiartxoa: Izan ere, atezain titularra **J. Arriola "Pitxirri"** zen baina bere entrenatzaileak **J. J. Arrillaga "Rioja"**k, zigortu egin zuen aginduei kasurik ez egitearren.

2000 1420

Maria Urizar

ileapaindegi
mixtoa

Errosario 9-1ezk.
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

J110110

ELGOIBAR

DEKORAZIOA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIAK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Ur tantak bezalakoak

Aitor, Iker eta Ander Ezenarro I rusta abuztuaren 28an jaio ziren. Hirukiak dira, azken urte mordoska hauetan herrian jaio diren lehenak. Ernesto Ezenarro eta Amaia Irustaren bizitza erabat aldatu da, bi izatetik bost izatera pasa dira bapatean. Hirukien jaiotzarekin, den dena hiru aldiz egin beharra dute, eta noski, ondokoen laguntza ezinbestekoa da biberioia ematerakoan, kalera ateratzerakoan...



• -Aitor, Ander eta Iker. Aitor eta Iker berdin-berdinak dira. Ander, ezberdintxoagoa.

Amaia Irustak eta Ernesto Ezenarrok ezusteko itzela hartu zuten, Amaiak batez ere, sabelean hiru haur zeramatzala jakitean. Haurdunaldiko laugarren hilabetean baja hartu zuen Amaiak eta

azken hilabetea soil soilik pasa behar izan du ohean. Oso haurdunaldi ona izan du, "nere ardura bakarra haurrak ondo jaiotzea zen" dio Amaiak. "Sabe-laren tamaina dela eta, jendeak pentsatzen zuen haurdunaldi normal bate-

an baino hiru aldiz sabel handiagoa izango nuela baina ez, ez da horrela. Normala 32 zmtakoa izatea bada, nik 42 zmtakoa nuen".

Zazpi hilabete Cerdirerkin jaio ziren Donostia-ko Erresidentzian, "bertan

daudelako hirukiak eta bikiak edukitzeko hobeto-en prestatuta". Erditzea bizkorra eta ona izan zen. Lehen haurra bide naturaletik jaio zen, beste biak, berriz, zesarea bidez. Jaiotzean bi kilo inguru zituzten eta orain, hilabete

Alfredo Otalora (Eibarko Ginekologi Kontsultategikoa)

- Oso arraroa al da hirukiak edukitzea?
- Datuak oso ezberdinak dira haurdunaldiaz edo erditzeaz hitz egiten badugu. Hirukien haurdunaldia 800etik behin gertatzen da eta erditzeak edo partoak 6.400etik behin, Obstetrizia eta Ginekologia Elkarte Espainoleko datuen arabera. Asko galdu egiten dira, %80a gutxi gora behera.
- Zergatik gertatzen dira haurdunaldi anitzak?
Lehen eman ditudan zifrak baldintza normaletan ematen diren kopuruak dira. Gaurregun haurdunaldi

anitzak edo multipleak askoz gehiago dira, esterilitate edo antzutasun arazoak dituzten emakume askori estimulante obarikoak ematen dizkiegulako. Estimulante hauek obulo mordoak sortarazten dituzte, eta hortik horrenbeste haurdunaldi anitz.

- Zein izan ohi da erreakzioa?
- Inpresioa oso handia da, denbora behar izaten dute seme-alaba bat baino gehiago izango dutela onartzeko, baina gero oso pozik egoten chra. Hori bai, familiaren laguntza ezinbestekoa da.
- Pilula antisorgailu edo anfikontzeptiboek eraginik izan dezakete?

- Inalaz ere ez. Pilulek ez dute haurdunaldi anitz gehiago eragiten.
- Erditzeak konplikatzan al dira?
- Bikien haurdunaldietan, erditzea normala izan daiteke, zesarea portzentaia %30etik gorakoa bada ere, konplikazioak sarritctn gertatzen baitira. Hirukien kasuan, zuzen zuzenean zesarea egitea izaten da gomen-dcrgarriena, haurrek erditze naturalen baino arrisku txikiagoa izaten dutelako.
- Ei** Egia da azkenak sufritzen duela gehien?
- Bai, lehenengoarenak, bigarrenngoarenak eta berak eragindako kontra-

t'erdi beranduago, 3,3 kilo dituzte bik eta 3,6 kilo besteak.

Egunean zehar 18 biberoi hartzen dituzte hurrek, bakoitzak sei. Jatunak dira eta nahiko formalak. Gauak egunak baino nekezagoak dira, "ordubatean eta bostetan hartu behar dute biberioia eta neuk bakarrik -dio Amaiak- ordu t'erdi inguru behar izaten dut hiruekin. Eguna ez da hain astuna, familiak asko laguntzen digu eta denon artean errazagoa da".

Kotxe kapota ere berezia izan behar, noski. Bi kotxe behar dituzte, bat bikoitza eta bestea batekoa. Kalera irteteko ere bi pertsona beharrezkoak dira. Ikusmina handia da, oraindik etxe inguruan

ibiltzen dira pasiatzen "baina kalera irteten garenean... ez dakigu zer izango den."

Azken aldian hirukien kasuak gero eta arruntagoak bihurtzen ari dira. Eibarren eta

Plaentxin ba omen • E Andresa eta Vicenta Ezenarro. Banandu ezin diren bikiak. daude hirukiak eta aurtan inoiz baino hiruki gehiago jaio dira Donostiako Erresidentzian. Ernestok eta Amaiak esan digute, beraien haurrak baino hilbebe t'erdi lehenago beste hiruki batzuk jaio zirela, eta urte batean Erresidentzian hirukien erditze bat eta batzutan bat bera ere izaten ez bada ere, aurtan hirukien 4 erditze izan direla.



• E Andresa eta Vicenta Ezenarro. Banandu ezin diren bikiak.

Laukiak

Elgoibarko errekorra "Lauko" baserrian jaiotako laukiek dute. Orain dela hiru edo lau generazio Olaso Kanposantuaren eta Sigma lantegiaren artean zegoen baserrian, lau haur batera jaio ziren. Jaio bezain pronto hil egin omen ziren. Hala ere, gertakari horren lekuko da baserriak "Lauko" izena hartu izana.

Ur tantak bezalakoak

Ezenarro ahizpak, Andresa eta Vicenta, Vicenta eta Andresa. Nor da nor? "Las gemelas del Almacen" Elgoibarko bikirik ezagunenak dira. Berrero jaioko balira, bikiak izatea nahiko luke-tela aitortu digute. Gai-nontzeko anai-arrebekin ez duten zerbait bereziak lotzen ditu, bata ezin du bestea gabe bizi, eta alde-rantziz. Errepublikatua bizitzeak badu abantailarik, "ez zara inoiz bakarrik sentitzen eta beti daukazu lagunak" azaldu digu Vicentak.

Umorerik ez zaie falta Ezenarro ahizpei. Andresa Vicentak baino lehe-

nago hil nahiko luke eta, Vicentak ere Andresak baino lehenago aldegitia nahiko lukeela dio. Izake-raz, Andresa dio Vicenta baino "sinpatikagoa" dela eta Vicenta berriz, oso "salada" dela, baina Vicentak kontrakoa uste du. Gauza berdinak gus-tatzen zaizkie jatekoan, jazkeran ere antzerako kolore eta arropak. Txiki-tatik berdin jazten zituzten eta orain ere, berdin jazten dira.

Ezberdindu ezinak milaka anekdota eta gaizki ulertu sortarazi dizkie, baina beti umorez hartu izan dituzte gertatutako guztiak. Ez dira ezkondu. Inoiz ez dugu ezkontzean pentsatu, gainera horrela ez gara banandu!". Askotan gertatu zaie bikien kasuetan arruntak diren kointziden-tziak, pentsa-mendu berbera momentu berean izatea, biek hagine-tako mina edukitzea... Haserrealdiak ere izaten dituzte, "sarritan gainera" baina bikien arteko senti-mendua hain da sendoa, ezingo luketela bata bes-teagandik urrun bizi.



zio uterinoak jasan behar izaten dituelako. Ama neka-tuagoa egoten da, oxigeno gutxiagorekin...

- **Zerikusirik du familian aurrekaririk egoteak?**
 - Bai, familian lehenago horrelako kasurik egon izan bada, errazagoa da haurdunaldi anitza edukitzea.
- **Zenbat biruki ekarri dituzu mundura?**
 - Askok, bueno ez hainbeste, ezin dut gogoratu zenbat. Medikuntzat, gurasoentzat bezala, bereziak izaten dira erditze anitzak.

MIREN

arraindegia



4000 1423

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

"Wonder Bra" kanpaina

Wonder Bra kanpainan murgilduta izan gara orain arte. Egunkarietan iritzi artikulatuak, irrati solasaldiak, modelu desfileak, zurrumurruak poteoan... denak osatzen dute "Wonder Bra" kanpaina.

Orain dela hiru hamarkada jaio zen sujetadore hau, nahiz eta dotoreagoa agertu gaur egun, benetako "boom" a ezagutzen ari da. Marketing eta publizitateari esker, salmenten lehen postua lortzeko zorian dago.

Beti egon dira "relleno" dun sostenak, kopadunak, "eruzado magiko" deitzen direnak... Nire iritzi inportantzia gehiegi ematen ari zaio. Eta lotsa ere eragiten dit.

Pasa den astean, komunikabideetan agertu zen nola 22 emakur hil egin dituzten aurtengo sei hilabetetan Estatu espainarrean tratatu txarrek eraginda. Hau bai dela benetako "boom" a, marketing-ik gabe. Egunero errealitate bortitza erakusten diguten albiste hauen aurrean, nola egingo diot kasu bularra igo edo eta elkartzan didan sujetadore bati? Hain sinplea eta superfiziala iruditzen zait!

Jipotua den emakumeari ez dio laguntzen horrelako edo bestelako sostena erabiltzeak ezta emakume izateagatik soldata txikiagoa jasotzen duen emakumeari ere, edota niri solidarioagoa izaten.

Azken hauek eta ez beste gaiak dira kezkatzen nautenak eta garrantzia ematen dizkiodanak eta ez, "Wonder Bra" delakoaren ingurukoak. Guzti honengatik, gai honi lerro gehiago dedikatzeak ez duela merezi uste dut.



ARANTZA ALDAZABAL
"Andraize"

Emakume Taldeko kidea

ILEARRAINDEGIA

4000 1424

FADEK
SOLARIUM

Erosario Naketa, 35 behe
74 26 92 Elgoibar

EMEN  Belardenç

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA 00**

San Bartolome 75. Tel: 74 40 31

ARKUPE **TINDATEGIA**

4000 1425

Ondo /244,4

Foruen nparantza 4
Tel.740 91

BELTZ

Mallpenna

San Franzisko 38

GOZOTEGIK

Ekulanean saiatzen 9, evr.a.

Murusamendiarrak
ELGOIBAR

4000 1426

Peidteget4
7evt tel 1
TM ea 46
Scuiew:44 ...

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45


Zer diozu "wonder bra" delakoaz?



IÑAKI GUEDE

31 urte, delineantea

Asmatu duten tontakeria bat gehiago. Ez dut ta ikusi baina daukanak ez du beharrik eta ez daukanari ezingo dio gauza handirik egin.



15/1.2115711

19 urte, superreko langilea

Naturala hobeto. Gitxi dakanak gitxi daka eta punto, nahixo dot naturala ikustia. Disimulatzeko ondo dao baina gero kendutakuan, sorpresia.



PHIAR PARIESE

34 urte, etxeoandrea

Holako gauzeri ez diet kasurik egiten. Aukera izan det baina ez ditzut ikusi. Nik neuk ez naban jantziko, bakoitzak daukan bezela.



RAMON FERNANDEZ

24 urte, elektrordkoa

Publizitate mordo egin dute jendeak erosteko. Inkomondoa dela entzun dut, inportanteena emakumea barrutik ondo sentitzea da.



NEREA LODOSO

28 urte, irakaslea

Bakoitzak bere burua onartu bihar dau eta ez dao inolako artifiziorik erabili biharrik. Konforme ez daudenei hobeto sentitzen laguntzen badie...



OLAIA GARAIOA

36 urte, gizartea laguntzailea

Hanka motzak eukitzigatik takoi altuak jartzea ez da soluzioa. Horrela ez da ezer lortzen. Bakoitzak bere gorputza onartu behar du.

JUARISTI Aroztegia

E• ur-aluminiozko UNIFORM feihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- Ez dauka mantenu beharrik
- Haizea eta urarentzat isolatua
- Kolore efektu ikusgarriak
- km ■ Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA: LANTEGIA:
 Ubitatrrte, 2 behea. Tel.: 74 13 33 Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

Bernardo Atxaga:

"Ez clu), esulin te Ubrique izan na || raturan"

"Noiz hasi nintzen hitzegiten? Nere lehen oroitzapena tximista batena da eta oso oso txikia nintzela badakit trizikloan nihoalako eta hura nire lehen trizikloa zelako. Izua hartu nuen. Nik ez det gogoratzen zer esan nuen.

Esan didatenez bat batean hasi nintzen, hitzegiten". Jose Irazu Garmendia esaten badugu askotxok ez du gizon honen berri

izango. Asteasun jaio zela badiogu, ezta ere. Baina Bernardo Atxaga aipatze hutsak ez du bestelako aurkezpenik eskatzen. Orain 43 urte Asteasun jaio zen Jose, gaur egun Bernardo bezala ezaguna bada ere. Asko idatzi dituen arren, "Obabakoak" da bere liburu ezagunena, horri esker irabazi zuen Literatur Sari Nazionala.

- Olerkia ala prosa, zer izan zen lehenago?

Besteen poemak eta kantak kopiatzen hasi nintzen. Esate baterako Yupankirenak. Nik idazten nitun poemek eta ipuinek konstrukzio benetan espantosoak zuten, alegorikoak. Tximeleta maitasuna zen, arratoia gorrotoa... Maitasun aitorenak ere idatzi nituen, benetan terribreak, baina ez nituen bidaltzen maitasun absurdoak baitziren.

- Idazteko irakurri beharra al dago?

- Asko aberasten du. Ez dira beti batera joaten. Nik antzematen det ze idazle diren irakurtzen hasi zianak eta zein hasi zen idazten. Nere bizitzan gauzarik haundiena irakurketa izan da.

- Zerk egiten du pertsona bat idazle?

- Hemingwayk esaten zuen idazle izateko bi gauza behar direla, bat anbizioa eta bestea borragoma. Formarekiko erreztasun bat behar da, nola pintore batek marrazkiak egiteko erreztasuna daukan, idazleak ere hala behar du izan. Nik uste jende gehienak daukala, talentua oso partituta



"Ustegabea bilatzen dut nik, arma polita da."

dago eta gutxi edo gehiago formarekiko hurbiltasun hori askok dute. Nor-tasuna ere behar dezu, halako siniste bat zeure buruan eta kemen bat, kemena ere beharrezkoa da. Idaztea nahi nuenean ez nindun apartatzen lerro horretatik ezta, ezta...

- Inspiraziorik existitzen al da?

- Bai, nik uste baietz. Inspirazioa une batez xehetasun bat ikusteko, entzuteko kapazitatea izatea da eta hor zerbait badagola antzematea, eta

hori badirudi musa batek esaten dizula. Hori elkarriketaren, gogoetaren, irakurketaren bitartez egiten duzu, perzeptzio hartzaile ona izan behar duzu.

- Zein da zure lan dinamika?

Barrendikan idazten dut, oso zaila da hori esplikatzea. Nik helbururik gabe idazten dut eta zain egoten naiz ea testuak zer esango didan, halako batean zeozer ikusten dut eta hari segitzen diot. Ustegabea bilatzen dut, arma polita da.

- Sekula ez al duzu sormena amaituko zaizun beldurrik izan?

- Dudarik gabe, ikara handia izaten det batzuetan, aldarte asko ditut. Ez da iturria agortzea balarrik, agian hurrengo liburua ez da asko zabalduko ez eta irakurriko ere...

- Norentzat idazten duzu?

Denentzat ez dut idazten, hori garbi daukat. Badaukat lagunarte zabal bat, eta sensibildade mailan zeozer badana eta horiei idatzi nahi diet, ez edozeini. Ez dut Jesulin de Ubrique izan nahi literaturan, ez dut txalo merkerik nahi, gainera txalo merkeek ez dute batera irauten. Txalo zaila da bilatu behar dena.

- Aspaldian errepikatu zaizun ametsa?

- Ni lo nagoen gelara ia atean kabitzen ez den sekulako gizona, abrigo batekin somatzen dut, bere pausuak entzuten ditut, logelara sartuko dela iruditzen zait.

- Eta zer esan nahi ote duen?

- Ez dakit hori, gizona bera sartzan denean, bera aditzera ematen denean agian jakingo dut.

Zaharrek BARR1

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 7. GEHIGARRIA



/411D1 ZAK

Zaharrentzako Oporrak

Gizarte-Arazoetako Ministeritzak, INSERSOren bitartez, 1994/95 urterako "Zaharrentzako Oporrak" egitaraua jarri du martxan. Asmoa, bidaia ezberdinetaz gozatzeko aukera guztien esku jartzea da. Penintsufa edo Balearretako plaza bat lortzeko, bidai-agentzietara jo behar da. Horrez gain, Kanarietako edo Kultur Zirkuituetako (Asturias, Kantabria, Madril, Gaztela-Leon, Extremadura, Galizia, Andaluzia eta Euskal Herria) plazaren bat lortzeko eskabidea Udaletxeko Ongizate Sailean edota Zaharren Egoitzan egin daiteke. Guztiak urriaren 31a baino lehen. Zirkuituen egonaldiak sei egunetakoak dira eta kostua 13.680 ptakoa da, Kanariar irletako bidaiaren iraupena 8 egunetako da 24.400 ptaren truke eta Balearrekin zein Andaluzia, Katalunia, Valentzia edo Murtzian 15 egun igaro nahi duenak, 26.260 ptagatik ditu Balearrekin eta 22.630 ptagatik besteak.

Bakailo txapelketa

Zaharren Biltokiak antolatutako Bakailo txapelketa bertan behera geratu da inortxo ere ez baita aurkeztu bertan parte hartzeko. Inoren partehartzerik gabe, ez dago lehiaketarik, noski. Ea hurrengo batean jendea animatzen den.

urriaren 19an hasi zen gripearen aurkako txertoaren kanpaina. Orain arte, 720 pertsona inguruk hartu dute aipatu txertoa, batez ere 65 urtetik gorako pertsonen komuni zaiena, Gazteagoak direnek ere hartu dezakete, batez ere patologia konkreturen bat duten kasuetan.

il Jakin arazi nahi da, urriaren 28an amaituko dela txertoa hartzeko epea, horregatik, nahi duten guztiak garaiz dabilta oraindik ere. Anbulategian egunero jartzen dute txertoa eta Zaharren Biltokian ostiraletan.

FELISA MUGURUZA:

"Raketista bezala haundixak ikusi eta entzun nituen"

"Ixa 80 urte". Ez digu adin zehatzik esan nahi izan Felisa Muguruzak. Haurtzaroaz ez ditu gauza asko oroitzen. San Lorentzon bizi izan zenean, Berdun baserrian, auzoko eskolara joaten zela gogoan du "sumar, restar eta multiplicar, horixe ikasten gendun. Ez zitzaten batere gustatzen eskolara jurgia". Bere gazte denboratan gaur egun ezezaguna den kirol batean aritu zen, baita berari esker bizi ere. Raketista izan zen, "gona eta alkondara zuixa jantzi eta gerriko polit batekin dotore asko ibiltzen ginan raketia eskuan hartuta".



- Zuek raketistak gaurko tenistak izan al zineten?

- Ez, ez zan iguala. Raketa batekin pelotan jokatzen genduan, frontoian eta hogeita hamar tantora. Binaka jokatzen genduan, parejaka. Apuestak ere ugari egiten zian. Ez pentsatu



orain puntistekin baka- rrik egiten dan gauza danik apuestenal

- Nola hasi zinen?

- 18 urtekin. Eibarko gizon batek erakusten zaban. Raketa zaharrekin ibili bihar izaten nitzan, berrixak karuak zian eta, zazpi duro balio zitxuan bakoitzak!

- Emakumien kirola al zenez?

- Orduan emakumiok ez genduan bestelako deporterik egiten eta tira, raketia hartzen hasi ginan eta, zelan esango nizun ba nik, modia edo izan zan. Neska asko hasi ginan, mila eta mordua.

- Dirutan majo egingo zenduten, ez?

- Bueno, moldatzen ginan. Nik 400 pta kobratzen nituen, oraingo 100.000 pta inguru. Ez zaon geizki, ez. Baina onak gehixao irabazten zeben.

- Zu ez al zinen ona ba, Felisa?

- Ez, ez. Manejua nakan nik. Pelotiak antxixikan egiten zaban atzera eta aurrera eta hari jarraitu bihar jakon.

- Elgoibartik Sebillara, ilusioz?

- Bueno asko aguantatu bihar, zaratak diarrak, ipuinak...

- Diarrak ere?

- Irabazten ez bazenduan astindu egiten zeben! (barreak) eta beti irabazterik ez daonez...

- Halere alde onik izango zuen.

- Bai, asko. Raketista bezala haundixak ikusi eta entzun nitxuan. Gerra zibilak Sebillan harrapatu gintuen, handik Donostiara etorri ginan eta gero Madrilera aldegin gendun, gerria amaitxu arte. Tenerifen egon nitzan beste urte batian eta handik Las Palmasera beste hiru ur-

te pasatzera.

- Badakit torero bat ere ezagutu zenuela.

- Bai, Manolete, nere albuhan bizi zan Cordoban. Haren antza nakala esaten zien eta behin, Manotetek, berak erabiltzen zaban "traje de luces" hoietako bat laga zian. Jantzi naban eta atera zien erretratua. Politxa nao gero ikusteko!

- Mundua ikusi, jendea ezagutu baina hala ere, aspertu.

Bai, aspertu egin nitzan 33 urte nitxuala, aspertu eta kantsatu. Ez naban raketia ezer gehixao jakitzerikan nahi. Gogorra zan galtzia. Horregatik, ahizpa eta bixok Ameriketara jun ginan, Caracaseran. Han ultramarinos denda bat jarri genduan eta 10 urte bizi izan ginan, lan eta lan.

- Damutzen al zara zerbaitetaz?

- Ez, ez. Nik dana egingo neuke igual, bere gauza on eta txar guztiakin. Ni ondo bizi izan nitzan, lan asko eginda baina beti ondo.



Manolete toreroaren "traje de luces" horietako bat jantzi naban behin.

AULA 3, ikasteko ordua iritsi da



Kutxa Fundazioak AULA 3ren 1994-95 ikastaroa aurkeztu zuen orain hilabete. Ikastaro hauek hirurogei urtetik gorako pertsonei daude zuzenduak bereziki. Guztira berrogeitabost ikastaro ezberdin daude eta horien artean bakoitzak bere gustukoa dena aukera dezake. AULA 3 Kutxaren zerbitzu berezi bat da eta topagune zein elkarbizitzarako leku bat izan nahi du, aisia betez eta kultur beharrianak asezuz. Horretarako ikastaroez gain, elkarrizketak, erakusketak, proiektzioak eta bestelakoak ere antolatu ditu. Honela, gaur egun

interesa duten hainbat gairi buruzko ezagutza era erraz eta ulergarrian sakontzea da helburua, bide batez denbora libre modu atsegina eta baliagarri batean igaroz. Ikastaroak adineko pertsonentzat daude diseinatuak bereziki, edukiak zehatzak dira eta praktikoak eta parte hartzea bultzatzen dutenak. Aurten 45 ikastaro emango dira. Horien artean bat euskaraz izango da: Euskal Literatura Idatzia. Honetaz gain, euskal etnografia, bideoa, argazkilaritza, pintura, musika, zinea eta beste hainbat gai ere landuko dira ikastaro ezberdinetan.

JULIAN IRIONDO

"Oin ere, banao psikologia edo ikastekotan"

1991-92 ikasturtea berezia izan zen Julian hiondorentzat. Aski ezaguna den elgoibartar honek, musikaz gain betidanik izan du bestelako gaiak ere ikasteko kezka. Gaztetan ez zuen aukerarik izan, baina "barruak aberasteko" denbora sekula amaitzen ez denez, 72 urte zituenean, AULA 3eko "Pentsamenduaren historia" ikastaroa egin zuen.



Zergatik "pentsamenduaren historia"? - Elgoibar, lanerako herri bat izan da, porrokatua. Lana zan hemen "per se", "enfinciOn del trabajo" bizi zen herria.. Baina intelektual mailan ez da ezer egon, dana zan lana eta lana, pentsamendu mailan ez dou euki ezer ere ez.

Zenbatean behin joan behar izaten zinen? - Urritik ekainera, astero astero, astelehen arratsaldian. Pare bat ordu egoten ginan eta oso ederra izaten zan.

Eta ez al zinen noizbait alpertu? - Ez, azkenian gustural Etxian esaten naban, "bixar banna ehl Nerekin ez kontau bixar". Bazkaldu, kafia hartu ta kotxian Donostira. Baina horreta-

rako libre egon bihar zera. Merezki dau, dudaripe.

- Zenbat zineten? - Ba, ez ginan asko. Ta hor geratu nitzan piskat harrixuta. Nola leike Donosti baten, horrenbeste jende bizi dan leku baten, hain errez euki hola-ko gauza ederrak eta hain jende gutxi egotia. Bueno, 50 bat edo izaten ginan, baina gitxi beixintzen jatan neri.

- Zer ikasi zenuen, batez ere?

- Mundu berri bat bilatzia izan zan haura. Gizonaren pentsamenduaren bilakaeria ikasi gendun. Oin sentitzen dot gure kulturian eta gure herrixan, gure aintzinakuen egoerian berri dakatela eta askoz hobeto sentitzen naiz. Oin badakit nundik

nora etorri dan gure gaurko pentsamendua, askoz hobeto ulertzen dot guzti hori. Nik pentsatzen dot danok ikasi beharko gendukela holako bat.

- Aukera izango bazenu, zer ikasiko zenuke gustura? - Beixu, lehenguan entzun naban radixuan "Universidad a distancia" horren inguruko komentari-xua ta egon nitzan pentsatzen gustora animauko nitzala beste lagun batekin. Elkarrekin estudixau ta hartu konpromiso hori. Ta igual psikologia edo ikasiko neuke, humanidade aldeko zeozer. Bateron bat animatzen bada, ni prest.

Gininasia pasiboa

Norberak bere gorputzaren kontzientzia hartuz, giharren inteligentzia garatzeari deitzen zaio "gininasia pasiboa". Ariketa fisikoarekin hasi aurretik, bakoitza bere gorputzaren jabe izan behar da. Gizonaren garapenarekin batera, aintzinatik eta konturatu gabe, hainbat mugimendu gaizki egiten ditugu sarritan. Mugimenduak mekaniko ki errepikatzerakoan gorputza behartzen dugu bere errefleju inkonziienteen aurka eta mugimendu horiek uztean aurreko egoera berera bueltatzen da gorputza.

Bizkarrean daude bizitzako gorrotoak, gutziak, estresak, nekeak, tentsioak, beldurrak, dudak... Muskuluaren tentsioaren bidez sortzen dira guzti hauek, lepondotik behatz puntaraino hedatuz. Atzekaldetik eginiko edozein mugirnenduk eragina dauka gainontzeko alde guztietan. Guztiek batera egiten dute lan, batzu besteekin konektatuak baitaude.

Ariketa asko orain azaldu duguna kontuan hartu gabe egiten dira. Honela, abdominalak egiten ditugu gogortu eta indartu asmoz baina gero mina sortzen zaigu eta gorputz osora hedatzen.

Bizitzan zehar hainbat gestu eta postura hartzen ditugu, hoietara ohitzen gara eta poliki-poliki postura hoiek atzekaldea, bizkaraldea desitxu-



JOSE ANTONIO ZUAZUBIZKAR
GINNASIA PASIBOAN ADITUA

ratzen doaz, mina sortzen. Mina sentitzerakoan konturatzen gara atzekalde hori existitzen dela.

Muskuluak tentsatzen direnean tira egiten dute eta hoiiek dira, normalean, desitxuraketa eta mina sortzen dutenak. Grabitateak behe-rantza egiten du tira. Hori dela eta, oreka mantentzeko pertsona desitxuratu egiten da.

Gorputzaren sentsibilitatea eragiten ez badugu, gimnasia-ko ariketek mina eta tentsioa areagotzen dute. Besoak 90 gradu baino gehiago altxatzen baditugu, gerria edo kokotea kuzkurtzen dira, asko kargatzen diren zonak dira.

Hankak 40 gradu baino gehiago altxatuz gero, atzekaldeko muskuluak "moztu" egiten dira, mina sortuz (lumbagoa, ziatikak...). Gorputza hezitu egin behar da, ez dugu bere aurka borrokatu behar. Gorputzak bere denbora dauka eta honi jarraitu behar diogu, esfortzurik egin gabe.

Mugimenduak gorputzaren barruan sortzen dira.

Sekula ez da beranduegi okerrak zuzentzeko, traumatismoak, istripuak edota operazioak eragindakako edo jaiotzez dauzkagun okerrak ez badira behintzat.

(Erredakzioan itzulian)

PAELLA



Juan Esnaola "Musillo"

OSAGAIAK

(10 lagunentzako):

Arroza (kilo bat), erbia (hiru kilo kanalean), pare bat kipula, berakatza (buru bat), bizpahiru estarlux, lata bat tomate, piper berdea, olio eta gatza.

PRESTAKETA:

Lehenengo erbia egiten da. Horretarako, kazuela batean berakatza eta kipula gorritu behar dira oliotan. Bizpahiru estarlux bota eta gero, erbia kazuelara. Egiten ari denean, tomatea eta piperrak botatzen dira. Guzti hau gehiegi egin gabe, arroza kazuelara bota eta oliotan frijitzen da piska bat, gero sueltio geratzeko arroz alia. Gero, ura botatzen jako gainetik, arroz kantidarian doblia, arroz baso bakoitzeko bi baso bete ur. Irekiten hasten darian su bajaran jarri eta 20-25 minutu inguru eduki, suabe suabe, egin arte. Sutatik atera ondoren bost minutu inguru eduki bihar da paellia reposuan. Honekin listo dau Errioxako ardo eder batekin mahaira ateratzeko.

Pello Ezkurra

Masaj ista

- **Zergatik masajista?**
Zirkustantziak, herentzia...
- **Masajearen funtzioak?**
Tentsioak gutxitu, minaren gunea desegin eta gorputza konpentsatu.
- **Egia al da masajistekin, pelukerekin bezalako harremana sortzen dela?**

> Gehiago oraindik.

- **Emakumeek eta gizonek, fisikoagatik, masaje ezberdinak behar dituzte?**

Ez, behar ezberdinengatik aldatzen da soilik.

- **Eskuak, arma boteretsua dira giza-komunikazioan?**
Bai, dena igartzen da, antena bat bezalakoak dira.
- **Gizakiok, gehiago ikutu beharko genuke geure burua?**

||| Noski. Ez dago kontakturik. Oso hotzak gara euskaldunok, faktore kulturalengatik ziurrenez.

- **Bihotzarentzako masajerik onena? 1** Komunikazioa.
- **Artea da masajea? 1** Zeozer badauka. Konpromizu bat.
- **Medizina alternatiboaren aldekoa?**

Bai, ze pertsona bere osotasunaren jabe bihurtzen da, berarekiko kontaktu gehiago hartzen du. Betiko medikuntzan, jendea ez da inplikutzen, epe motzeko konponbideak bilatzen ditu.


- **Zer ematen dizu pinturak?**
Printzipioz autoestima. Orain bertan bapez.
- **Pintura estilo bat? i** El Bosco, mistizismo piska bat dauka.
- **Hortaz bizitzeko gogorik bai?**
Gustatzen zait baina ez daukat denborarik.
- **Utopia bat?**
Lehen asko nituen, orain gutxiago. Mundu zoriontsu bat.
- **Hauteskundeak direla eta, kezkatzen zaitu abstentzioak?**

> Bai, adierazgarria da. Jendeak pasatzeak kezkatzen nau.

- **Esango al zenidake nork eman dizun masajerik debertigarriena?**

I Turkian izan zen. Hondartzan zerbait erre ginen lagunok eta gero. masaje famatueta joan eta benetako tortura izan zen.

MYRIAM ALDAZABAL



HIESA

DOINUA: Neguaren zain


Gure herrian HIES zikinak nahikoa jende erun dau ta sufrituaz egon dira familiak egun ta gau ahaztu badira nik gura nuke oraintxe denak gogoratu beraiei eta familieri eskeintzen diet bertso hau.

Gure herrian oraindik ere badaukagula zer egin famili askok HIESarekin hartu bait dute nahiko min Errotatxoko lantalde honek egin du lana oso fin beste bizi bat gure herrian alperrik galdu ez dadin.

HIESa gaitza izan omen da aste hontan hizketagai gaixotasun hau aspaldi hontan gazte ugariren etsai ta guk berari aurre egitea besterik ez genuke nahi bizi ugari salba liteke etorkizuna ere bai.

BERTSO ESKOLA

1000



Ze100 Y?

INTE IORES

- SUKULDE ETA BAINUAK
- PROIEKTU ETA
- ERREFORMAK
- DEKORAZIOA
- ERREGALUAR

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 ehea.

4900

119

ICUI DELAN

En nada
Baserriko ogia

B. Ecnarro, 1 w 74 33

1000

TIRO RIRO

San Frantzisko, 54. 74 13 86

EinAn

Txankakuak Eskubaloi Taldea patrozinatuko du

Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzarien Elkarteak herriko kirol elkarte batzuk diruz laguntzeko erabakia hartu du. Horietao batzuk C.D. Elgoibar eta Eskubaloi Taldea dira. Txankakuak dirulaguntza eman dio Eskubaloi Taldeari, horregatik mutilen senior taldeak Txankakua-Elgoibar izenez jokatuko du.

Harrijasotzaile eskolan izena emateko epea

Mintxetako instalazioetan funtzionatuko duen harrijasotzaile eskolan izena emateko azken eguna hil honen 21a izango da. Herri kirol hau gustuko duenak eta berau praktikatzeko gogoz dabilen edonork 74 28 65 (Jabier Arriola "Egi") edo 74 29 11 (Mintxeta baserria) zenbakietara dei dezake.

Rugby zapiari buruzko ikastaroa

"Kirola euskaraz" programaren barruan, rugby zapia jokuari buruzko ikastaroa burutuko da hil honen 26an Bergarako Labegaraieta kiroldegian arratsaldeko 6,30etatik 8,30ak arte. Irakaslea Iriaki Ugarteburu, hezkuntza fisikoan lizentziatua eta Eibarko rugby taldearen entrenatzailea izango da. Joku hau rugbyaren arauak ezagutzeko modu ezin aproposagoa da. Izena eman nahi duen edonork Kultur Etxeko Kirol Zerbitzuko 74 44 15 zenbakira dei egin dezake edota bertatik pasa goizez.



ikel Leon:

"Defenditzia baino nahiago det erasotzia"

I Noiz hasi zinen xakean jokatzen? - Oin dala hiru edo lau urte. Lagunekin hasi nintzan, entretenimendu modura. Txapelketetan parte hartzen aurten hasi gera.

I Etxean beste norbaitek jokatzen du xakean? Ez, jendiak nola jolasten zaban begiratzen naban eta gustau egin zitzaidan eta hortik hasi nintzan jokatzen.


I Zein txapelketetan parte hartu duzu? Bitan. Lehenengua oin dala gutxi Zubi Ondok antolatutako txapelketa bat izan da eta azkena, Errosaixo kaleko jaixetan egon dan torneua. Azken hau irabazi ein naban eta aurrekuan hirugarrena geratu nintzan.

I Orain txapelketarik jokatzen ari zarete? - Bai, jun dan astian hasi zan eta azaroaren 26an bukatzen da. Lenengo partidia galdu ein naban. Zaila izan zan, ze onenaren kontra tokatu jatan. Baina bestela nahiko ondo moldatzen naiz.

I Aurretik estrategia bat edukitzea garrantzitsua izango da, ez? Jokaldi bat pentsatu bihar dozu, ondo ertetzen bada irabazi leike. Gaizki bazuaz momentuan pentsatu bihar dozu zer ein leiken, baina normalian zaila da ondo ertetzia.

Zuk zein estrategia erabiltzen

- Adina: 14
- Zaletasunak: Futbola eta tronpeta.
- Jokalari faboritoo: Onenak, Kasparov agian.
- Zuriak ala beltzak? Zuriak.



duzu? - Kontrakuak zer egiten duen begiratzen det eta gera nere mobimientuak pentsatzen ditut. Momentuan pentsatziak arrisku haundixa dauka.

I Erasotzea ala defendatzea nahiago? Erasotzia. Irabazi ahal izateko hobia da nere ustez atakatzia. Nik behintzat atakatzia nahia-go det.

I Zein piezarekin hasten zara? - Zaldixarekin.

I Piezarik erabilgarriena zein da? - Erregina. Gehixen erabiltzen dena da, mobimientu gehixen claukana da.

I Noiz ematen duzu amore partida batean? - Gauzak oso gaizki daudenean eta kontrakua oso ona dala ikusten dotenian. Ezer ezin bada ein...

I Noren aurka jokatzea gustatuko litzaizuke?

- Jende nagusiagoaren kontra. Eta famosuen artetik, Kasparov edo.

I "Inteligenteen" kirola al da xakea? - Ez, ona izateko asko jokatu bihar da eta liburuak irakurtzen baditxuzu eta gauzak ikasi beti da hobia.

4000 1290

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

HitzeRiteko: landu ~~Aufe~~ ~~ahotsal~~

Polipoek, noduloek, abotsaren era.il-ra okerrak, - b.

ERAGINDAKO RON'ERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE

DEITU E 74 15 56 - 10 03 51

1408 4000

OIERKI IGONGAILUAK

Urruti ~~dei~~ abe bertakook segiduan

k 4 uko dizugu igongailua

'' (943) 11 3

ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Ed 11 (so

a) • 20600 EIBAR

Laruthatean hasiko dira eskolarteko okuak



- **Joan den larunbatean atletismo lasterketetan parte hartu zuten haurrak.**

Lehendabiziko futbol, eskubaloi eta saskibaloi partiduak jokatuko dituzte larunbat honetan Pilar, Ikastola, Herri Eskola eta Kiroldegiko kantxetan. Urriaren 22tik apirilaren amaiera arte benjamin, alebin eta infantilak hiru kirol kolektibo hauetan arituko dira. Atletismoari dagokionean, pasa den astebukaeran hiru ikastetxeen arteko pistako finalak jokatu ziren Mintxetan.

Aurten lehen aldiz, eskolarteko kros lasterketa bat burutuko da Elgoibarren, urtarriaren 22an, probintzia mailan. Froga Gipuzkoako Txapelketa-rako baliagarria izango da. Atletismoko azken frogak maiatzean izango dira. Atletismoaz gain, beste bost kirolean aritzeko aukera izango

dute hurrek; mendizaletasuna, igeriketa, txirrindularitza, pilota eta xakea dira. Xakean eta pilotan ere hasiak daude txapelketak.

Partaidetza oso handia izan ohi da urtero. Guztira 55 talde osatu dira, hauetatik gehienak taldekako hiru kirolean arituko dira, eta haur kopurua kirol hauetan 560koa da.

Orokorki hitz eginda, berriz, eskolarteko jokuetako kirolen batean edo bestean aritzen dira haur guztiak, hau da, ia % 100ak hartzen du parte. Larunbatetan ezezik, astean zehar ere jokatuko da partidurik, egutegia bete abal izateko, alegia. Astero 26 partidu jokatuko dira eta aurtengo ikasturtean zehar, 78() partidu. Iaz ez bezala, aurten, kategoria bakoitzeko talde guztiek, denon denon aurka jokatuko dute.

Jokuen antolakuntzan parte hartzen dute ikastetxeetako ardura-dunek, gurasoek eta irakasleek, herriko kirol elkarteek, **Kirol Zerbitzuak** eta Foru Aldundiak.

Filosofia aldaketa

Eskolarteko jokuen helburua kirol ezberdinetan partehartzea bultzatzea da, espezializazioaren kaltean. Partehartzea, kolaborazioa eta elkartasuna bultzatzen dituen joku hezitzailea izatea da helburua Udala Kirol Teknikaren ustetan. Eskolan zabaltzen diren baloreen bultzatzaile diren jokuak antolatzea da asmoa, fisikoki trebetasun gutxiago dutenei aukerak emanez, irabazlearen esker-nak baztertuz eta abalmen handiak eta txikiak dutenen arteko ezberdintasunak arinduz. Balore hauek entrenatzaile eta gurasoengan errotzea ezinbestekoa da Kirol Teknikariaren iritziz.

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 22
12,00: Elgoibar - Bergara (Kadeteak)
17,00: Haundi Hernani

Igandea 23

10,00: S. D. Eibar Sporting Herrera (Kadeteak)
12,00: S. D. Eibar Urki (2. errejionala)
16,00: Elgoibar - Ostadar (Neskak)

ESKUBALOIA Kimidegian Larunbata 22

16,00: Elgoibar - Bergara (Jubenilak)
17,30: Txankakua Elgoibar Beasain (Senior mutilak)

FUTBITOA Urasandin Igandea 23

10,00: King-Kong - Kosakos Aldavas - Oraiko Cafe
11,00: D. Kalimotxo Ametsa Haritza San Roketarra
12,00: La Maxia - G. Gareia Replastisa - Rua

ESKUBALOIA

Elgoibar 24 - Jauja 4 (Kadete neskek)
Elgoibar 18 - Zarautz 15 (Kadete mutilak)
La Salle 17 - Elgoibar 29 (Jubenilak)
Elgoibar 9 Baztango 12 (Senior neskek)
Leizaran 2() - Txankakua Elgoibar 20 (Senior mutilak)

FUTBOLA

Elgoibar 0 - Hamaika Bat 0 (Jubenilak)
Elgoibar 8 - Beti Sutan 0 (2. errejionala)
Elgoibar 4 Hernani 0 (Infantilak)
Mondra 6 - Elgoibar 1 (Neskak)
Valmaseda 1 - Haundi 1
Mutriku 0 - Elgoibar 3 (Kadeteak)

OSTIRALA

22,15 ANTZERKIA

"Hala ba zan, ez ha zan, sar dadila..." IN FRAGRANTI
✓ Herriko Antzokian

LARUNBATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Kultur Etxean

19,30 · 22,15 ZINEA

"Maverick"
✓ Herriko Antzokian

23 IGANDEA

16,30 · 19,30 · 22,15 ZINEA

"Maverick"
✓ Herriko Antzokian

M ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Maverick"
✓ Herriko Antzokian

19,00 GURASOEN BILERA

1. eta 2. maila BUP eta REM
✓ Lanbide Eskolako Aretoan

ASTEARTEA

19,00 GURASOEN BILERA

UBI, BAG, BTI eta LH
✓ Lanbide Eskolako Aretoan

22,15 ZINEA

"Lo que queda del dia"
✓ Herriko Antzokian

26 ASTEAZKENA

17,00 PELLO AÑORGA IPUIN KONTALARIA

V Udal Liburutegian

19,30 MAHAINGURUA

Alkoholaren kontsumo desegokiari buruzko prograxuaren aurkezpena
✓ Kultur Etxean.

Antolatzailea: Drogomenpeketasunen Prebentziorako Zerbitzua.

OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ Odol Emaileen egoitzan.
(P.M. Urruzuno 8)

22,15 ZINEA

"Mentiras arriesgadas"
✓ Herriko Antzokian

txandak

FARMAZIAK:

22, larunbata: Etxeberria
23, igandea: Etxeberria
24, astelehena: Ormazabal
25, asteartea: Ormazabal
26, asteazkena: Ormazabal
27, osteguna: Ormazabal
28, ostirala: Yudego

OKINDEGIA:

23, igandea: ZABALETA

EL 11 III 13 A

Maverick

Zuzendaria: Richard Donner
Antzezleak: Mel Gibson, Jodie Foster, James Garner.

Far Westeko garaian, Bret Maverick hara eta hona dabilen abenturazale erromantiko eta timatzailea da, sartzen den arazoetatik nola irten asmatu ezinik dabilena. Zane Cooper sheriffarekin topo egiten du gutxienez espero duenean. Maverick-ek Oesteko poker jokalarari onenen kontra jokatu du, Annabelle, Coop eta Maverick-en bizitzak erabat nahastuko direlarik.

Ikastaro praktikoa!

MALDARITZA NATORISTA BEGETARIANOI

- **SUKALDARIA:** Iker Iriondo
- **EGUNAK:** Azaroak 8, 10, 15 eta 17
- **ORDUTEGIA:** 6etatik 9etara.
- **TOKIA:** Zaharren Biltokia
- **PREZIOA:** 2.000 pta.
- **IZENA EMATEKO:** Elgoibarko Izarra K.E. (74 16 26). Azken eguna: azaroak 4a. kopuru mugatua.

ANTOLATZAI LEA:

Elgoibarko Izarra K.E.

LAGUNTZAILEAK:

Elgoibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia



23an

ESAN BAI EUSKAL HERRIARI

ABERTZALE ETA EZKERTZALE



20.000

1402

Bozkatu

HERRI BATASUNA



EIBAR

OSASUNDEGIA

4

15.000

143

Irkizu Pasealekna, 11.

(Orbeake Dorrea,)lienengo solairua).

Thioak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

- 1- Alergologia
- 2- Kardiologia
- 3- Zirugia
- 4- Dermatologia
- 5- Ginekologia
- 6- Laborategia
- 7- Barne medizina
- 8- Ortodontzia

- 9- Otorrinolaringologia
- 10- F'ediatria
- 11- Sikiatria
- 12- Radiologia
- 13- Traumatologia
- 14- Urologia
- 15- Dietetika eta nutrizioa
- 16- Foniatria medikoa

SEAT TOLEDO BERRIA



LUZAROAN IRAUTEKO EGINA

Eibar Motor, S, A. Otaola Hiribidea, 17. Tel. 10 36 42 EIBAR

1111MI AIII
wracs, z,
"tral"

1499

35000